

# Egurrezko kristala

## KUARTZ-EN KONTZERTUA

Iparraldeko rock eszena ttipia oraindik bizi dela ikusi genuen joan den urriaren 1ean... Bunuzen! BOTA gaztetxeak berriz ere besta ederra antolatu zuen, azken 15 urteetan preso den Didier Aguerre Pagolarraren sostenguz.



Andrea Zubozki

Hau izan zen gaualdiaren egitaraua: Amaren alabak xiberotar abesbatza, Doctor Mephisto blues rock bertsio talde fina, Zoo-ren hardcore-rap experimentalak, Kuartz talde berri berria eta lepoen astintzen segitzeko Dama Baztango metalcore laukotea. Estilo desberdinetako talde horiek entzuleengan kuriositateak piztu eta giroa laster berotu zuten.

Jo zuten talde guztiek kronika bana merezi badute ere, honakoa Kuartz taldeari eskainia izanen da.

Kuartz, stoner rock biziak jotzen duen bikotea da. Ibes Mongabure gitarran eta kantuz, lehenago Hurmura metal taldean ezagutu genuen. Teknika landuari esker baxuaren lana ere egiten du Ibesek. Bere gitarra soinu indartsua aterako zuela nehorik dudarik ez zuen baina



Kuartz taldeko Ibes Mongabure eta Oihan Delavigne udan emandako emanaldi batean.

talde berri huntan kantari talentuak ere erakutsi ditu!

Baterian Oihan Delavigne, nehoiz jotzen ikusi ez nuena. Honek zuzen eta indartsu laguntzen ditu Ibesen riff-ak, eta plazerez egon nintzen haren jokoak behatzen.

Hor dugu bikotea: kantuak arras landuak, bien arteko kohesio ederra, publikoak harrotzeko helburuarekin.

Aspalditik gustatzen zait stoner musika, 1990eko hamarkadan Kaliforniako basamortuan Kyuss taldeak bluesa, rocka eta metala batuz sortu zuen estiloa. Azken urteetan stonerra anitz entzun bada ere, Kuartzek erakutsi digu bazuela zer erran, eta uda hontan kontzertuak ematen hasi den taldeak jada bere nortasuna baduela dudarik ez da! Taldeak ez du stonerraren aurpegi psikodelikoa

lantzen, baizik eta estiloaren zuzentasuna, indarra eta melodia. Estiloaren kodigoak hor ditugu bai, baina eraginak nahasiz finezia eta sorpresa ere sortzen jakin dute. Melodia ederrak, riff dinamiakoak, pasarte lasaiagoak ere bai, aspertzeko astirik ez digute utzi bi horiek.

Eszena gainean jarrera xumea badute ere, jotzeko plazerrak animatzen dituela ageri da, eta kantu on zein landuei esker, gaitzeko energia transmititzen dute. Aspektu teorikoekin zuek konbentzitzen entseatu naiz orain arte, baina burmuina itzali eta zentzuekin pentsatzean, sinpleki erran nezake gau hartan Kuartzek egurra bota zuela! Lehen lerroan ginen lagunak denbora guztia pasatu dugu dantzan, saltoka, oihuka, irria ezpainetan. Bota beste garagardo bat! Hori bai rock'n'rolla! ■